



DISLEBI
DISLEXIA EUSKADI

X. Urteurrena



10 urte Dislexia eta ikasteko
bestelako zailtasunak dituzten
pertsonekin konprometituak.

Aurkibidea

Ongietorria	2
Dislexia eta ikasteko bestelako zailtasunak	3
10 urteko historia	7
Dislebi gaur	10
Dislebiren esparruak	12
Etorkizunerako erronkak	18

Ongietorria

Duela urte batzuk, guraso talde txiki bat, beren seme- alaben zailtasunekin topatu zen ustekabeen; bai hitz egiterakoan, baita irakurtzeko, idazteko eta zenbait ikaskuntza matematikoak bereganatzeko zailtasunak ziren. Taldeak egoera honek sortzen zuen zalantzari eta nahasmenari aurrera egin zion. Errealitatea ezarri egin zen.

Beren seme -alabei gertatzen zitzaiena ulertzeko eta haiei lagundu ahal izateko, formakuntza behar zutela ohartu ziren, eta horretarako mintegi, biltzar, liburu eta internetez baliatu ziren, besteak beste. Azkenean elkartu egin ziren!

Diagnostiko bat izateko eskubidea aldarrikatu zuten, baita esku-hartze zehatz bat ere beren beharretara egokitutako prestakuntza zuten profesionalekin. Honekin batera, ikasteko aukera-berdintasuna lortzeko beharraz ohartu ziren.

Dislexia eta Ikastearen Nahasmenduak mediku eta hezkuntza erakundeetan eta, oro har, gizarte osoaren aurrean ikusaraztea izan zen beren lehentasuna. Osatu berri zen familia baten modura, kezkak eta esperientziak partekatu zituzten, eta baita arriskuak eta konpromisoak hartu ere.

Horrela sortu zen DISLEBI, Euskadiko Dislexia Elkarte.

Topagune honen bitartez, gure nahia da zuek gu hobeto ezagutzeko aukera izatea.

Dislebiren elkarteburu Isabel Molinaren esku.

Dislexia eta ikasteko bestelako zailtasunak

Zer da Dislexia?

Dislexia da ikasteko nahasterik ohikoena.

Hau da ezaugarriarik argiena: umeak zailtasun handiak ditu irakurtzeko eta idazteko; eta hori ez dago lotuta ez adimenari, ez kulturari, ezta emozioei ere.

Goiz agertzen da, umea irakurtzen eta idazten hasten denean.

Eskola-porroteko kausarik nagusienetako bat da dislexia.




X. Urteurreneko Memoria



Sintoma orokorrak

- Dislexiadun umeak argiak dira, baina asko kostatzen zaie irakurtzea eta idaztea.
- Arreta eta kontzentrazio falta dute; hori dela eta, erraz galtzen dute arreta, eta etiketa hauek jartzen zaizkie: alferrak, heldugabeak, ahalegin nahikorik egiten ez dutenak...
- Pentsatu izan da haien arazo-iturria ikasteko gogo eta motibazio faltari lotuta egon dela.
- Motelak dira, bai gelako atazak egiten, bai etxerako lanak egiten.
- Gorabehera handiak dituzte eskola-lanetan: oso egun onak eta egun txarrak, itxuraz inolako arrazoirik gabe.
- Autoestimu baxua dute, eta eskolako lanak egiteko ez dute gogorik adierazten, gehienetan.
- Honela ikasten dute askoz errazago: esperimenduak eginda, ikasi beharrekoa behatuta eta ikus-entzunezko baliabideak erabilia.
- Buruko mina izaten dute, baita tripakoa ere. Loezina jasaten dute askotan.
- Ikasteko egiten dituzten ahaleginak ez datoz bat jasotzen dituzten emaitzekin. Horrek frustratu egiten ditu dislexiadun umeak.
- Neskato eta mutiko hauek primeran gogoratzen dute aspaldian non egon ziren, non bizi ziren, zer egiten zuten... Aurreko egunean ikasitakoa, ordea, erraz ahazten dute.



Berariazko sintomak

Irakurketa

- Dislexiadun umeari kosta egiten zaio soinuei lotutako letrak eta zenbakiak identifikatzea, baita hitzak ulertzea ere.
- Askotan, gehitu, kendu edo alderantziz jartzen ditu letrak eta silabak. Hitzak elkartzeko joera ere agertu egiten du.
- Hainbatetan, irakurtzen duena ez du ulertzen, baina, ahoz azalduz gero, primeran ulertzen du.
- Atzerriko hizkuntzak (ingelese...) ikasteko, zailtasun ikaragarriak ditu.



Idazketa

- Batzuetan, ez zaio letra ulertzen, eta ordena falta somatzen zaio, berak idatzitako testuetan.
- Diktaketetan akats asko egiten ditu, baita arbeletik kopiatzen dituen kontuetan ere: etxerako lanak...
- Oro har, ortografia akats asko egiten ditu.



Matematika eta Kalkulua

- Hatzamarrak erabiltzen ditu kontatzeko.
- Diru zein ordu kontuetan ez da ondo moldatzen.
- Zailtasun handiak ditu segidak ikasteko: astegunak, urtaroak, egunaren zatiak...; baita denbora (atzo, bihar, goizean...) kudeatzeko ere.



- Asko kostatzen zaio biderketa-taulak ikastea.
- Matematika-eragiketak ulertzen ditu, baina kosta egiten zaio buruketak ebaztea.

10 urteko historia

2005-2007

2005 Bere sorreran, kezkarik edo interesik nagusienak, alde batetik dislexiari buruz ikastea zen, eta bestetik, antolatzea. Zenbait hilabetetan bilerak eta lan egin ondoren, DISLEBI sortu zen. Hori izan zen unea!

Bazkide fundatzaile baten alabak sortu zuen logoa. Dislebek Web orria, posta elektronikoa eta triptikoa sortu zuten, eta bilerak egiteko tokia ere eskuratu zuten (hasiera batean Balmasedan).

Dislebek Estatuko beste elkarteekin batera, 2006ko Lege Organikoak (LOE) Hezkuntza Premia Bereziko ikasleak (HPB), Beharizan Bereziak dituzten Ikasletzat hartzea lortu zuen.

2007 Bloga sortu zuen eta Sare Sozialetan indartu zen. Hezkuntza Administrazioak dislexia duten ikasleekin lan egiteko eta behar duten hezkuntza erantzunik egokiena garatzeko konpromisoa hartu zuen.

2008-2010

2008 Hezkuntza Sailak Mahai Tekniko bat sortu zuen Dislexia duten ikasleei hezkuntza erantzuna emateko.

Triptiko berri bat egiten da, Web orria eta egoitza soziala Bilbora eramaten da.

2009 Ezintasuna dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak, Dislexia duten ikasleen Unibertsitaterako sarbidea eta iraunkortasuna erregulatzen du.

2010 IV kapituluan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleak identifikatu egiten ditu eta zein erantzun jaso behar duten agintzen du.

Ikastetxeek Jardunbide Egokien Gidaliburua daukate; dokumentu hau irakurketaren irakaskuntzarako orientabide metodologikoa da eta alerta-adierazleak adinka sailkatuta azaltzen ditu. Horretaz gain, dislexia eta beste ikasteko bestelako zailtasunetarako jardunbide egokien deskribapen zehatza da.

Dislebi, ikerketako proiektu desberdinetan parte hartzen hasten da.

2011-2015

Garai honetan, Elkarteak aurrerapen handia egiten du. Ikusten du dislexia duten pertsona guztiekin lan egiteko beharra dagoela (haur, gazte eta helduak) eta garapenaren arlo desberdinetan (Oinarriko Hezkuntza, Hezkuntza Berezia (hizkuntzak, musikala, kiroletakoa) eta baita arlo laboralean ere (oposaketak, hizkuntzen gaitasun agiriak,...).

2011 Errekurtso berri bat sortzen du: "Guía básica sobre DISLEXIA y DEAs". Dibulgazio eta formakuntza lanetan sendotzen da. Irakurketa Errazarekin lehenengo hitzarmena sinatzen du.

2012 Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoak 2012-2016, azkenik, definitu eta zehazten du. Euskal eskola Publikoak dislexia duen ikaslegoari zer eskaintzen dion.

2013 Hezkuntza, osasuna eta ikerketa arloetan, zerikusia duten beste erakunde eta enprekin elkarlanean aurrera jarraitzen du, baita profesionalen elkargoekin (AHIDA, BCBL, ENCODIGO, CLPV, TEL).

2014 Elkarteak lanean jarraitzen du boluntarioen lana indartuz, egunerokotasunak eskatzen duen kanpo eta barne beharrei Dislebik erantzun egokienak eman ahal izateko.

Dislebi gaur

Dislebi osatzen dugunok zailtasuna orekatzeko eta sufrimendua gutxitzeko asmoz lanean jarduten dugu.



Adin txikikoen hezkuntza eskubideen alde apostu egiten dugu, baita etorkizuenan trastornoa duten ikasleen aukerak gutxituak ez izateko, zailtasunik ez duten beste ikasleen aurrean. Beraz, berdintasunetik, konpromisotik eta erantzunkizunetik lan egiten dugu zailtasunak ikusgai bihurtzeko eta bera gainditzeko errekurtsioak izateko. Hau guztia, ez biktimismoan ez gainbabesean erori gabe egiten da.

Zorroztasunetik eta egiatasunetik lan egiten dugu, ikerketara eta etengabeko ezaguerako bilaketara joz.

Ahaleginak eta iraunkortasunak mugitzen gaituzte. Helburu berak konpartitzen ditugun Zerbitzuekin elkarlanean aritzeko beharraz konzienteak gara, sinergiak eta ahaleginak batuz.

Bazkide guztien konpromisoa, boluntarioen lanarekin batera, beren parte-hartze aktiboaz, partekatuz, formatuz, eta gainerakoekin eta gainerakoetarako lan eginez, hori guztia da Dislebi aurrera jarraitzeak bermatzen duena, etorkizunerako perspektiba berriak izanik.


X. Urteurreneko Memoria



Jarduera esparruak


Ekintza hezigarria

Ikasketa zailtasunak dituzten pertsonekin zuzenean lanean ari direnei (familiak, boluntarioak, profesionalak) laguntza ematea, egunerokortasunak eskatzen dien beharrei aurre egiteko formakuntza zehatza eskainiz.



Ekintza dibulgatzailea

Mitologiak, kondairak eta sineste faltsuak baztertzea. Gizartean, heziketa eta osasun komunitateetan behar den ezaguera eskura jartzea, dislexia ezagutzeko, prebentzio-lanetan aritzeko eta trastorno horri atxikituta sortu daitezkeen arazoei gainditzen laguntzeko.




X. Urteurreneko Memoria





Aholku, informazioa eta arreta

Gurekin harremanetan jartzen diren pertsona guztiarentzako, errekurtsio dokumentu eta informazio egiaztatuta.



X. Urteurreneko Memoria



Proiektuak

Ziurtasun zientifikoak babestutako ikerketetan sostengua eta laguntza. Gure esparru bereko elkarte eta kolektiboekin lanean aritu, aukera berdintasuna bermatzen duten eskubideak garatzeko.



2009	<ul style="list-style-type: none">• Voz en euskera para lector de textos• Proyecto COEDUCA CONSOLIDER con BCBL (Basque Center on Cognition, Brain and Language
2010	<ul style="list-style-type: none">• Proyecto de investigación del Departamento de Oftalmología del Hospital de Cruces• Proyecto de investigación Haur Zaintza• Proyecto de investigación eTIDI: solución tecnológica como herramienta de terapia e inclusión para la dislexia
2012	<ul style="list-style-type: none">• Proyecto europeo de investigación LITERACY
2013	<ul style="list-style-type: none">• Proyecto de investigación sobre DISCALCULIA• Estudio piloto para la utilización de Screening de detección de habilidades fonológicas a los 4 años de edad elaborado por Fernando Cuetos
2014	<ul style="list-style-type: none">• Colaboración en el proyecto DISLEXIA EN MONOLINGUES con el BCBL

Sare Sozialak eta gure Dokumentuak

Internet eta Sare Sozialak gaur egun ezinbesteko tresnak bihurtu dira eta gure kasuan oso lagungarriak izan zaizkigu.

Hauen bitartez, kolektiboa ikusarazteko, ekintzak zabaltzeko, berriak eta albisteak emateko, argitalpenak, formatzeko eta ikerketaren aurrerapenetara hurbiltzeko aukera izan dugu. Hau guztia, errekurtsio ekonomiko urriekin. Hori dela eta, Dislebik Internet sarearekin eta bere erabiltzaileekin zorretan dagoela esan nahi dugu.

Mila esker hor egoteagatik.



Etorkizunerako erronkak

X. Urteurrenak gure lan eta proiektu asoziatiboari buruzko gogoeta sakona ekarri du eta Dislebi etapa berri batean jarri du.

Gaur egun, Dislexia eta Ikasteko Zailtasunak gure gizartean gehiago kontuan hartzen dira. Gizarte sektore askotan, detekzio edo esku-hartze goiztiarraz hitz egitea ohikoa da, baita osasun sistemak egindako diagnostiko bat onartzea ere.

Ikasgeletan, elkarbizitzarako eredu bat garatzea pentsatzen dugu, ikasteko, parte hartzeko eta ikasleak ilusioz betetzeko gune egokia eskaintzen duena eta era berean, garapen pertsonal, emozional, sozial, akademiko eta laboral handiena bermatzen duena parte hartzen duten ikasle guztientzako, beraiek baitira ikas-komunitatearen interes gunea.

Gaur egun ere, ondo jabetzen gara komunitate zientifikoaren garapen sozialaren ezaguerak pertsonen ongizatearen hobekuntzarako duen garrantziaz. Erakunde publikoei dagokie aurrera jarraitzeko baimentzen duten politika aktiboak sortzea eta ikertzen jarraitzea.

Bestalde, oraingo egoera errealari begirada bat emanez, Dislebin duela 10 urte hasitako proiektu asoziatiboarekin lanean jarraitzeko beharrea ikusten dugu geure burua.

X. Urteurreneko Memoria



Hezkidetzeta eta koordinazioa abiapuntua izanik, irakaskuntza, familia eta osasun eremuetan lan handia egin behar da oraindik, orain arteko errezeloak eta ulertezintasunak gainditu ahal izateko. Azken hamarkadetako ezjakintasunak, formazio gabeziak eta Dislexia eta beste Ikasteko Zailtasunak duten haur, gazte eta oro har pertsonetikiko konpromiso ezak, bide okerretik eraman gaituzte. Etorkizunean egoera nabarmen hobetu dadin, ulermena eta eskuzabaltasuna beharrezkoak izango dira denon artean jardunbide egokietara eramango gaituzten proposamen errealistak eraiki ahal izateko.

Gure eskerrik beroena eman nahi dizuegu haur guztiei, gure seme-alabei, ikaslegoari, lankideei eta, oro har, Dislexia eta bestelako zailtasunak dituzuen pertsona guztiei, urte hauetan zehar, lagundu baitiguzue dislexia hobeto ulertzen eta normaltasunerako bidean aurrera egiten.

Eskerrik asko ere, urte hauetan zehar gure bidelagunak izan diren organizazio, entitate eta administrazioetako profesionalei. Pertsona hauek guregan konfidantza izan dute, baita gure formakuntzan, informazioan, aholkuan, gure lanaren ahalmenean, gure helburuetan eta gure erronketan ere.

Bukatzeko, ilusioari, konfidantzari eta talde laneko jarraitutasunari dei bat zabaldu nahi diegu. Zuek guztiak gabe, ospakizun hau ezinezkoa izango litzateke.

Mila esker.